

FUTBOLA

Realak Europarako ateak zabalik ditu Carranzan berdindu ondoren

Osasuna lau negatiboz arituko da igandean Sadarren Barcelonaren kontra

Realاک sailkapeneko seigarren postuari eutsi zion Ramon de Carranzan Cadizi puntu bat ostu ondoren. Osasunak, ordea, beste positibo bat galdu zuen Sadarren Atletico de Madriden kontra, Barcelonaren kontrako partiduen atarian. Zigandak azkenik garrantzi handiko garaipena eman zion Athletici San Mamesen.

RAMON BASALDUA / BILBO

Gero eta gutxiago falta da liga txapelketa amaitzeko. Hamaika partidu edo hogeitabi puntu, hain zuzen. Hori dela eta hemendik aurrera jokatzaren partiduek sekulako garrantzia dute, bai bigarren mailara jaisteko arriskua baztertu nahi dutenez eta baita UEFA n sartu nahian ari diren taldeentzat ere. Kontutan izanik, beti ere, Liga txapelketa Real Madrid eta Barcelonaren kontua dela.

Txutxi Aranguren zuzentzen duen Athleticen garrantzi handiko partiduak jokatu zuten igandean San Mamesen Mallorcan taldearen kontra. Zurigorriek entrenatzaile berria dutenik ez dute puntu bat bera ere galdu etxean jokatu izan dituzten bi partiduetan. Hala ere, Jose Angel Ziganda berak adierazi duenez, Athletic larri ibiliko da etxetik kanpo puntuak lortzen hasi arte. Ez zaio ez arrazorik falta nafarri.

Lau puntu besterik ez daude, Athletic eta promozio postuetan dagoen Espagnolren artean. Hori dela eta zurigorriek ezin dute



Bustingorri gorritxoa, Manolo aurrelariarekin norgehiagoka. EFE

puntu bat bera ere galdu San Mamesen, bestela hondamendia etor baitaiteke. Igandeko norgehiagokako puntu bi Athleticentzat izan ziren arren, Mallorcan sekulako partidu egin zuen. Zurigorriek garrantzi handiko bi partidu jokatu dituzte datozen bi ihardunaldietan, Espagnolren kontra Sarriren eta Realaren kontra San Mamesen. Bi norgehiagoka hauetan gertatutakoaren arabera argitu edo ilundu daiteke Athleticen etorkizuna.

GOLIK SARTU EZINIK Osasunak puntu bat lortu zuen igandean Sadarren Atletico de Madriden kontra jokatu zuen partiduan. Partiduan ikusitakoaren arabera gorritxoek, koltxoneroek baino merezimendu gehiago egin zuten. Hala ere, bigarren zatia nola hasi zen ikusirik, pozik egoteko arrazoriak ditu Iruñeako taldeak. Pedro Mari Zabalkak entrenatzen duen taldeak egutegi ikaragarriari ekin zion igandean, Atletico de Madriden kontra jo-

✓ Athleticen ez du puntu bakar bat ere galdu San Mamesen, Arangurenen entrenatzaile kargua hartu zuenetik.

katu ostean, Barcelona eta Valencia izango bait dira gorritxoaren arerioak.

Barcelona dator hurrengo asteburuan Sadarrera eta gauzak nola dauden ikusirik, batek baino gehiagok berdinketa sinatuko luke. Osasunak eragozpen handia du aurtengo denboraldian, sekulako arazoak bait ditu golak sartzeko. Mallorca alde batera utzi eta Osasuna da lehen mailan gol gutxien sartu dituen taldea, hogeitaz bakarrik hain zuzen. Zabalzak zuzentzen duen taldeak bi puntura du Espagnol eta hirura Cadiz. Datozen bi partiduetan punturik lortzen ez bada areagotu egin daiteke gorritxoaren egoera larria.

ETXEKO PARTIDUETAN EUTSI John Benjamin Toshackek entrenatzen duen

Realak denboraldi honetako laugarren positiboa eskuratu zuten Ramon de Carranza futbolzelaian.

Positibo honek garrantzi handia du bai, baina donostiarrek biak eskuratzeko aukera izan zuten, bigarren zatian gol aukera garbiak izan bait zituzten. Sailkapeneko erdikaldean ari den talde batentzat positibo bat nahikoa izan daiteke. Ez, ordea, Europako txapelketan sartu nahi duen taldearentzat.



JUAN TERREGI

Osasunak bizirik dirau

Osasuna ez da ari gorantzako bidean. Talde nafarra promozio postuetatik puntu bakarrera dago sailkapenean, eta jaitsiera zuzenetik hiru puntura, Liga txapelketako azken ihardunaldia jokatu ondotik.

Jarraian gorritxoek izango duten egutegia, kontrario izango dituzten taldeei erreparatu gero, ez da batere onuragarria Osasunaren interesentzat. Nafarrek Sadarren Barcelona, Real Madrid eta Sevilla —talde indartsuak— hartu behar dituzte. Eta etxetik kanpoko partiduetarako iragarpenak hebeak izan badaitezke ere, ez dirudi puntuatzeko aukera handirik ere izango dutenik.

Berandu erreakzionatu du Osasunak. Zabalzaren agindietara ari diren jokalariek ez dira nabarmena zen arriskuaz jabetu, orain aste gutxi arte. Taldeak konfidantza osoa merezi zuen, gora egiteko gai izango zelakoan, eta emaitza txarrei ez zaie behar adinako garrantzirik eman; orain agerian geratu bada ere haien benetako garrantzia.

Hain egoera larrian gora egiteko beharrezko den mentalizazioa, denboraldiko partidu zailenkin batera iritsi da. Eta gainera, lesioak gehiegizko zama behurtu dira Osasun, eta aragin handiegia izan dute hain plantila murriztean.


Cholo izan da ebakuntza gelatik pasa beharra izan duen azken jokalaria, eta Urban abduktoreetako lesioarekin ari da jokatzan, halaberrez.

Osasunak bere indarren gainetik ere egin beharko du borroka aurrerantzean, estuasun handiagoak eragozteko. Azken bost urteetako krisialdirik latzena iragaten ari dira gorritxoak. Taldeak eta zalegoak bat egin behar dute elkarlanean, indarrak batuz. Atletico de Madrid taldearen kontrako partidu ostean Pedro Mari Zabalkak esan zuen bezala, Osasunak oraindik bizirik dirau.

ASTEKO SELEKZIOA

SAILKAPENA

- 18 Martin Gonzalez
- 15 Juan Antonio Larrañaga
- 12 Oceano
Eugenio Bustingorri
- 11 Jokin Uria
Ernesto Valverde
Jan Urban
- 10 Jose Luis Gonzalez
Roberto
Bittor Alkiza
- 8 Ritxi Mendiguren
Pepin
Asier
Josu Urrutia
- 7 Andoni Lakabeg
Patxi Salinas



ARANGUREN (2)

Parentesi artean jokalaria bakoitzak izan dituen agerraldiak.

IHARDUNALDIA 27

OSASUNA taldeko

jokalariek dira protagonista aste honetako selekzioan. Gorritxoek berdinketa besterik ez zuten lortu etxean, baina benetan partidu ona jokatu zuten. Athletic taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen San Mamesen, Mallorcaren aurka. Aranguren taldeak gol aukera asko egin zituen eta bi sartzeko gai ere izan zen, Zigandaren lan bikainari esker. Realak positibo garrantzitsua lortu zuen Cadizen, baina uste baino arazo gehiago izan zituen. Toshackek mutilek ez zuten aurreko ihardunaldietako maila bikaina erakutsi.